

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL
DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

GUARDIAKO UDALA

Praktiketako funtzionarioak izendatzea

2024ko abenduaren 9an onetsi eta Guardiako Udalaren ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuko praktiketako funtzionarioen izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat etorri 2022ko abenduaren 21eko 146. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko apirilaren 18ko 93. zenbakiko BOEn argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak behin betiko sailkapenak proposatu ditu, eta izangaiek dokumentazioa aurkeztu dute.

Hurrengo lehendakaritza dekretuen arabera, praktiketako funtzionario hauek izendatu dira, eta Guardiako Udaleko lanpostu hauek atxiki dira:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA MOTA	PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATUTAKO PERTSONA	NANA	IZENDAPEN DEKRETUA	PRAKTIKALDIA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	C2	ADMINISTRAZIO OROKORRA LAGUNTZAILEAK	MARIA AMELIBIA MARTÍNEZ DE AGUILLO	***8837**	2024/0593	3 hilabete

Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko pagen baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan jasotako egoeretako bat gertatzen denean izan ezik. Bat etorri 16. oinarrian ezarritakoarekin, praktikaldia 3 hilabetekoa izango da C taldean, eta sei hilabetekoa A taldean.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzematea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Guardiako Udalaren ediktu taulan eta www.laguardia.eus web orrian, eta interesdunei jakinarazi zaizkie.

Dekretu horien aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsua baino ezingo da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtsu berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Guardia, 2024ko abenduaren 24a

Alkatea
RAÚL GARCÍA EZQUERRO